

Ruandar errefuxiatuen kanpamentuak hilerri erraldoi bihurtzen ari dira

Erakunde humanitarioek kolera izurriteari ezin diotela aurre egin adierazi dute

Zaireko Goma hiriaren inguruan dauden ruandar errefuxiatuen kanpamentuak hilerri erraldoi bihurtu dira asteazkenean sortu zen kolera izurritea dela eta. Milaka errefuxiatu hil dira dagoeneko eta datozen egunotan beste 50.000 ruandar inguru hilko dira, laguntza humanitaria beranduegi helduko baita.


GOMA

Mugarik Gabeko Medikuek eta Nazioarteko Gurutze Gorria elkarteek atzo ohartarazi zuten ezin diotela aurre egin sua baino bizkorrago hedatzen ari den kolera izurriteari. Hildakoak ezin dira zenbatu. Fosak eraikitzeke lanetan dabiltzanek ere fosak egin ahala gorpuz betetzen dituzte. Atzo bertan hirurehun gorpu sartzeko moduko hiru fosa bete zituzten.

Jende pilaketak, janari eta sendagai faltak eta orain kolera izurriteak eragin duten hondamendiak ezintasun hutsan utzi ditu oraindik bizirik dirauten errefuxiatuak. Edateko urik ez izateak hedatu du kolera. Jendeak, besterik ezean, ur kutsatua edaten du, horrek gero deshidratazioaz eta beherakoaz hiltzera kondenatuko dituela jakin arren. Erakunde humanitarioek ez dute klororik ura garbitzeko.

Lurrean etzanda euren ordua noiz iritsiko zain baleude bezala daude. Lurretik altxatu eta Ruandara itzultzea erabaki duten ehundaka batzuek Zaire eta Ruandaren arteko mugak itxita topatu dituzte. Zaireko Gobernuak behin-behinean hartu du erabaki hori, izan ere, mugan Gobernuko tropek Fronte Patriotikoko gerrilarien garaipenaren ondorioz ihesean bidean utzi granada eta arma ugari baitaude, eta bidea garbitu artean mugak itxita edukiko dituztela esan dute. Atzo bertan soldadu ruandarrek utzitako granada bat lehertu zen eta gutxienez hiru lagun hil ziren.

BERTAN GERATZERA KONDENATUTA Ruandako Gobernu berriak itzultzeko deia eta erakunde humanitarioek gauza bera egiteko aholkuari jarraitu nahi diotenek mugak itxita dituzten bitartean, gehienak malariak, difteriak eta kolera ahuldurik ezin diote bideari ekin ere egin, eta gainontzekoak, berriz, beldur dira agintari berriek mendekua hartuko duten. Gobernu berriak errefuxiatuek bidea libre izango dutela eta adiskidetzeko nazionalerako deia egin badu ere, Ruandan ber-



Haur ruandar bat, hilda edo hilzorian dauden errefuxiatuen artean eserita.

JACK DABAGHIAN / REUTER

tan, tutsiek eta gerrilariak lehen hutuenak ziren etxeak hartu dituzte. Buruzagiek etxe handiak eta atzerriko enbaxadak euren egoitza bihurtu dituzte. Besteek prezio merkean eta batzuetan sosik ordaindu gabe jabetu dira etxez.

Nazioarteko komunitateak berandu erreakzionatu du errefuxiatuen kanpamentuetara laguntza humanitaria bidaltzen eta horrek milaka heriotza ge-

hiago eragingo ditu. Atzo EEB-Bek eta Europako Batasunak 11 hegazkin bidali zituzten Zairera. Erakunde humanitarioek, ordea, etsirik, adierazi zuten laguntza beranduegi iritsiko dela eta astebe lehenago bidali izan balute milaka lagun salbatu izango zituztela. Frantziako Gobernuak, berriz, atzo adierazi zuen bertara Turkesa Operazioan bidalitako 2.500 soldaduen misioa abuztuan amaituko dela eta printzi-

pioz Frantziara itzuliko direla misioa amaitu bezain laster. Erakunde humanitarioek hamai-k bider eskatu diete soldadu frantziarrei geratzeko, hauen laguntzarik gabe, besterik iritsi ezean, alferrikakoa izango baita iritsitako laguntza humanitaria, nork banatu ez baita egongo. Parisen informatu zutenek, beste erabakirik hartu ezean oraingoz misioaren iraupena hasieran pentsatutakoa izango da.

Ganbiako soldadu talde batek estatu kolpea eman du soldatak kobratzeko

DAKAR

Erabateko nahasmendua nagusitu zen herenegun gauean Ganbian, soldadu talde bat matxinatu eta bi hilabetez atzeratutako soldaduak exigitu zutenen, iturri diplomatikoek informatu zutenek. Afrikako mendebaldeko herri txiki horretatik iritsitako berrien arabera, matxinatuek nazioarteko aireportua, Irrati Nazionala eta hiriburuko puntu estrategiko batzuk hartu zituzten. Gobernuaren aurka altxatu ziren soldaduek Dawda Jawara errepublikako lehendakariarekin elkarrizketatzeko borondatea azaldu zuten. Uste denez, Jawara EEBBetako gerraontzi bat bisitatzeko ari zela gertatu zen altxamendu militarra eta bertan gertatzea erabaki zuen. Baina Estatu Batuetako iturriek gezurtatu egin zuten unzia estatubatuarra zela.

Dakarrera iritsitako berrien arabera, Ganbiako presidentek uko egin zion matxinatuekin hitz egiteari. Horietako asko Liberiatik iritsi berriak ziren. Bertan Mendebal Afrikako Elkarte Ekonomikoko indarrekin parte hartu zuten gerrako aldeak bantzen.

Matxinatutako ofizial batek komunikatu bat irakurri zuen goizean hartu berri zuten Irrati Nazionalan eta bertan zioenez estatu kolpea eman eta Saihu Sably lehendakariordea atxilotu zuten. Komunikatuan zehar kolpea justifikatu zuen esanez Dawda Jawarak 30 urteotako agintean «agertu duen gaitasun faltagatik» izan dela.

Behin-behinean agintea hartu dutenek instituzio guztien jardunaren etenaldia eta alderdi guztien desegitea iragarri dute. Etxeratzeke deia indarrean jarri

zuten atzo eta Gobernuko kide guztiei komisaldegietara joateko exigitu zieten.

Estatu kolpea eman zutenak Gobernuko tropen aurka borrokan aritu ziren ordu batzuetan, eta Banjul hiriburuko puntu askotan tiroketa gogorak izan ziren, Dakarrera iritsi ziren berriek ziotenez. Iturri horiek ez zuten adierazi tiroketetan biktimarik egin zenez.

1981n Jawarak estatu-kolpe saio bat zapuztu zuen Senegalgo tropei esker. Hauek Kukoy Samba Sanyangek gidatutako militar gazteen altxamendua zapaldu zuten. Atzo Senegalgo Gobernuak ez zuen komunikaturik igorri. Bi herri hauek konfederazio bat osatzekotan ibili ziren 1982an, baina esperientziak gutxi iraun zuen martxan jarritako instituzioen funtzionamendua huts egin baitzuen.

LABURREAN

ARGENTINAKO eta Panamako atentatuak lotuta

Libanon egoitza duen talde islamista batek hartu du bere gain Buenos Airesko elkarte juduaren aurkako atentatua. Ansarola talde islamistak Buenos Aireskoaz gain —gutxienez 52 lagun hil ziren eta oraindik 70 desagertuta daude— Panaman asteartean 22 lagun hil ziren hegazkin atentatua ere berak egin zuela adierazi du. Talde honek «munduan sionismoa amaitzeko» helburua duela esan eta antzeko atentatuak egiteko «talde suizidak» antolatuta dituela iragarri du ●

DOMINIKAR Errepublikak hauteskundeak balio gabetuta

Dominikar Errepublikako Hauteskunde Batzordeak joan zen maiatzaren 16an Lehendakari zarako hauteskundeetan Santo Domingo hiriburuan egin zen bozketa balio gabetu egin zuen atzo, «egin ziren irregularitate edo akats humanoek, ez teknikoek, eraginda». Maiatzeko hauteskundeen emaitzak ez dituzte jakinarazi, prozesuan egin ziren irregularitateen salaketak direla kausa ●

AKASHIK serbiarrek egin bortxaketak salatu ditu

Yasushi Akashi Bosniarako Butros Gali NBEko idazkari nagusiaren ordezkariak gogor gaitzetsi zituen atzo Jugoslavia ohiko errepublika horretako serbiarrek etengabe egiten dituzten giza eskubideen bortxaketak. NBEko indarrek Bosniako giza eskubideen bortxaketei buruzko azken informak serbiarrek egin bortxaketa larriak bildu ditu ●

BIRMANIA: Armadak errefuxiatu eremu bati eraso egin dio

Amnesty International erakundeak Tailandiako mugan dagoen errefuxiatu kanpamentu bati eraso egiteaz salatu zuen atzo Birmaniako Armada. Airen arabera, 360 soldadu inguru errefuxiatuen kanpamentuan sartu eta erabat birrindu zuten. Errefuxiatu eremu horretan Mon herriko errefuxiatuak ziren ●